

# Euskararen normalizazioa eta erabilera epaitegietan

Irati Siena Zengotita-Bengoa

## 1. Euskararen arauketa Justizia Administrazioan

Administrazioak erdaldun jarraitzen duen honetan, Eusko Jurlaritzaren zein Autonomia Erkidegoko udal- nahiz foru administrazioetan, berau euskalduntzeko ahaleginetan kokatzen dira “**Euskara biziberritzeko plan nagusiaren**” helburu estrategikoak. Euren artean dago osasun-zerbitzuetan, herrizaingo-zerbitzuetan eta justizia-administrazioan euskara herritarrentzako zerbitzu-hizkuntza eta langileentzako lan-hizkuntza izan dadin egitasmoak abiatzea. Hori errazteko, zerbitzuak kontratatzerakoan hizkuntza-irizpideak hartuko dira kontuan eta lanabes informatiko zein lanerako beste baliabideak euskaraz egon daitezen neurriak hartu beharko dira.

Gainera, euskararen normalizaziorako planifikazioa emango da, euskara-zerbitzuak sendotu eta hizkuntza-normalizatzaileen prestakuntza bermatuz: alde batetik, administrazioan erabiltzen diren testu juridikoak euskaratzea ezinbestekoa litzateke, lexiko berezitua finkatuz eta kontsulta terminologikoak egiteko zerbitzuak eskainiz; eta, bestetik, zuzenbide eta ekonomia ikasketak euskalduntzeari lehentasuna emango zaio, etorkizuneko administrazioko goi-mailako teknikari gehienak bertatik aterako direlako. Hala ere, 25 urtetan hartutako neurriak ez dira nahikoa izan administrazioan herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko, nahiz eta legeak behartu.

Beste hainbeste gertatzen da eremu juridikoan. **Botere Judizialaren Lege Organikoaren 231.1** artikulua ezartzen du gaztelania, estatuko hizkuntza ofiziala den heinean, jarduera judizial orotan erabiliko dela, baina, 231.2 artikulua autonomia-erkidegoetan beste hizkuntza ofizialen bat egonez gero, epaitegi eta auzitegi-tako funtzionarioek hau ere erabili ahal izango dute, alderdietakoren baten hizkuntza hori ez menperatzearen ondorioz defentsa-gabezia eroriko litzatekeela argudiatuz kontra egiten ez badu. Alderdiak, euren ordezkari edo zuzendariak, lekukoak eta adituek, ordea, beti erabili ahal izango dute euskara euren nahia hori bada, eta epaile edo auzitegiak nahi duen pertsona izendatuko du itzultzaile lanak egiteko. Hala ere, zuzenbide zibil berezi edo foralari lotutako karguetan, euskara jakitea merezimendua izango da eta ezagutza hori nola balioetsi erregelamendu bidez arautuko da.

Dena dela, administrazio-zerbitzuetan gertatzen den bezala, legea alde izan arren, egunerokotasun juridikoa gaztelania hutsean ematen da, lan giro erdalduna eta zerbitzua euskaraz jaso daitekeen ezagutza falta edo jasotzeko etengabeko oztopoak direla eta, benetan eskubidea bermatzeko tresnarik mahai gainean ez baitago, eta, ondorioz, normalizaziorako pausoak motelak eta nekezak dira oso.

Nafarroan, berriz, panorama beltzagoa da. Izan ere, euskararen erabilera eremuka banatuta egoteak ez dio mesede egiten euskararen normalkuntzari eta, egia esan, aurrerapausoak baino, hizkuntza eskubideen urraketak dira nabarmenago azkenaldian eremu euskaldunean. Ipar Euskal Herriari dagokionez, euskara ez da bertan hizkuntza koofiziala, Frantziar estatuan frantses hizkuntza baita onartutako bakarra, beraz gure hizkuntza ez du inolako babes edo laguntzarik bertan, eta, hainbat saiakera eta borroka egin diren arren, ia ezinezkoa da justizia euskaraz jasotzea. Hori dela eta, hizpide izango ditugun euskararen normalkuntzarako ekimenak Euskal Autonomia Erkidegoan aurrera eramandakoak izango dira, gainerako lurraldeetan egindakoei mespretxu egiteko asmorik gabe.

## **2. Hizkuntzaren normalkuntza prozesua Justizia Administrazioan**

Aurreko atalean Justizia Administrazioan egun gaztelaniaren erabilera euskararenari gailentzen zaiola eta beraz hizkuntza eskubideak bermatzen ez direla ikusi dugu. Dena dela, esan bezala, urte hauetan egin, egin dira euskararen sustapenerako saiakerak, nahiz eta aurrerapen gehienak azken urte hauetan eman diren. Jarduera hauek burutu dituzten erakundeen ahaleginak aztertuko ditugu ondoren, denak maila berean aritu ez diren arren.

### **2.1. Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Goreneko Gobernu Aretoa**

Kontseilu Nagusiaren menpe dagoen arren, Aginte Judizialaren Lege Organikoaren 152 artikulua bere Autonomia Erkidegoan eskumen zabalak esleitzen dizkio eta aspalditik azaleratu du gai honekiko bere kezka. 1993an ikerketa bat egin eta Justizia Administrazioaren euskalduntzerako plan orokorra aurkeztu zuen, zeina bereziki funtzionarioei zegokien eta oraindik burutu ez den. 1996an itzultzaileekin lehenengo arazoak hasi ziren. Izan ere, orain bezala, hiritar batek justizia administrazioan euskara erabili nahi bazuen, itzultzaile bat behar izaten zuen, eta zenbait abokatuk protestak aurkeztu zituzten hauen lana onartzen ez zutelako. Hala ere, Gobernu Aretoak itzultzaileen sistemari eutsi zion, eta beteko zela ziurtatzearen 1997an Prebentzio bat sortu zuen, egintza juridikoetan itzultzaile lanak zelan burutu adierazteko eta Saletako presidenteei prebentzioa betetzea oztopatzen zuten abokatu edo prokuradoreak zelan zigortu ezartzeko. Horrez gain, Gobernu Aretoak Hizkuntza Normalkuntza Batzordean parte hartzen du.

## **2.2. Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiarenak**

Espainiako Aginte Judizialeko Kontseilu Nagusiak 1998an Karrera Judizialaren Erregelamendua aldatu zuen karrera judizialeko kideen lekualdatze-lehiaketetan autonomia erkidegoetako hizkuntza ofizialak eta foru zuzenbide zibila ezagutzea merezimendu nagusi izan zitezen, horrela, eskaera aurkezten dutenei, baldintzak betetzen badituzte, antzinasun urteak gehitu zaizkie. Hasiara batean ez zen epaile karguan ere aurreikusten, baina geroago araua zabaldu egin zen, beraz, ezagutza hori frogatuz gero, lehentasuna izango lukete kargua betetzeko. Ordezko epaileen kasuan ere aukera hau ematea proposatu zuen Euskadirentzat Kontseilu Nagusiko bokalak, eta Normalkuntza Batzordeak onartu arren, behin betiko erabakia hartu aurretik Kontseilu Nagusiko ikasketa eta txosten batzordeak aztertu behar du, merezimendua alegatzeko prozedura zehazteko, kontuan hartuta Gobernu Aretoa dela Kontseiluari epaile zein magistratuen proposamenak helarazten dizkiona.

## **2.3. Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko hitzarmena**

Aginte Judizialaren kontseilu Nagusiak eta Eusko Jaurlaritzak EAeko Justizia Administrazioaren zenbait eremu euskalduntzeko lankidetzak hitzarmena sinatu zuten 1998ko otsailaren 18an, zeinaren eragin esparrutik kanpo geratzen diren idazkari judizialak zein fiskalak. Hitzarmenari hiru helburu taktiko ezarri zizkieten: 1.- karrera judizialeko kideek, kide-gaiek, bake-epaileek zein ordezko epaileek euskara ikas dezatela; 2.- Egintza juridikoetan, herritarrei laguntzean edota Justizia Administrazioako langileekin izan beharreko harremanetan euskararen erabilera sustatzea; eta 3.- Justizian erabilitako euskara juridikoa zabaldu eta hobetzea.

Lehenengo xedeari jarraiki, horientzako guztientzako euskalduntze-alfabetatze eta euskara juridikoko ikastaroak eskaini dira, baita horretarako epaileak liberatzeko aukera ere, bitartean auren karguan ordezko epaile bat arituko litzatekeelarik.

Horrez gain, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Abokatu Elkargoko Euskara Batzordearekin batera, hainbat dokumentu euskaratu ditu eta HAEEI eta UZEI bezalako erakundeei esker zitazioak, jakinarazpenak eta herritarrenganako gainerako komunikazioak itzuli eta ordenagailu bidez egiteko prestatu ditu. Itzulpen horietako termino batzuk eztabaidagarriak zirela eta, Deustuko Unibertsitateko eta EHUko irakasleek, abokatuek, epaileek, UZEI eta HAEEko kideek osatzen duten termino juridikoen normalkuntzarako batzordea sortu zen. Izan ere, askotan aipatu dugun bezala, egindako ahaleginak ahalegin, euskara juridikoak finkatu gabe jarraitzen du.

Berriro hitzarmenari helduz, organo judizialek euskara erabiltzeko ereduazko esperientzia sustatzeko konpromisoa hartzen dute, horrela bulego barruko lana euskaraz burutu, herritarren hizkuntza eskubideak bete eta funtzionarioen hizkuntzaren ezaguera sakontzeko xedearekin. Euskaldun hiztun kopuru altua zuten eremuetako epaitegietan bakarrik sartu zen indarrean Hitzarmena, Bergaran eta Durangon, esaterako. Hala ere, esperientzia hauek arrakasta izan dezaten, funtzionarioen motibazioa eta parte hartzea ezinbestekoak dira, eta, zoritxarrez, orain arte, euren inplikazioa ez da behar bestekoa izan, ez baitute euskaraz ikasteko aukera profitatu, eta, egin dutenek, ez baitute beraz erabiltzeko interesik azaldu.

#### **2.4. Eusko Jaurlaritzarenak**

Eusko Jaurlaritzak eskumen zabalak ditu euskararen normalkuntza prozesuan eta, ikusi bezala, beste erakunde batzuekin batera elkarlanean aritu da horretarako. 1996an funtzionarioen transferentzien gaineko eskumena lortu zuen eta funtzionarioen sindikatuekin hitzartutako lan baldintzen inguruko akordioen zati garrantzitsu bat euskararen ingurukoa izan zen. Horren arabera, postu batzuetarako hizkuntza eskakizuna derrigorrezkoa izango zen, gune euskaldun edo ia guztiz euskaldunetan batez ere. Hala ere, Justizia Ministerioak kasua eskumen gatazka bezala aurkeztu zuen Konstituzio Auzitegiaren aurrean eta honek azken ebazpena eman arte, Jaurlaritzak ezingo du perfil zehatzik ezarri.

Bestalde, hasiera batean euskalduntze planak borondatezkoak izatearen ondorioz, esan bezala, funtzionarioek ez zuten ikasteko interesik agertzen, eta Justiziako sindikatuek benetako euskalduntze plana aldarrikatu izan dute. Gainera, funtzionario euskaldunen banaketa ez dator bat populazioaren beharrekin.

Justizia Sailari dagokionez, funtzionarioen eskura jarritako ikastaroek gain, Justizia Administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko erakunde-arteko Batzorde baten sorrera bultzatu du, euskararen esparruan ahalmena duten zenbait erakunderi aholkua emateko, normalizazioaren aldeko zenbait ekimen bultzatzeko eta erakunde horien arteko komunikazioa errazteko. Erakunde horien artean Gobernu Aretoa, Abokatuen Elkargoak, Justizia eta Kultur Sailak, Fiskalen Elkarteak, etab. daude.

Idazkari Judizialen eta fiskalen euskalduntzea, Justizia Ministerioaren ardura da berez, baina erakunde honek oztupoak jarri baino ez du egin normalkuntza prozesuan, beraz, Jaurlaritzak erronka hori bere gain hartu du, ikasketa gastuak ordainduz, ezin baitu haienezako planik ezarri.

### **3. Etorkizunerako erronkak**

Esan dezakegu administrazioaren arlo juridikoan euskararen normalkuntzarako aurrerapauso garrantzitsuak eman direla, baina gehienak bere erregulazioari dagokionak izan dira, eta egunerokotasunean praktikan fruitu gutxi eman dira. Horren arrazoietako bat aipatu dugun justiziako funtzionario eta langileen euskalduntzeko interes gabezia da, konpontzeko gatza benetan. Hala ere, nik uste dut Justizia Administrazioaren eskaera euskaraz egingo balitz, euskaraz galdutako balitz eta erosotasunagatik gaztelaniara joko ez balitz, horrek sortuko lituzkeen arazoak medio (lana pilatzea, administrazioa moteltzea, etab.) funtzionarioek euren burua behartuta ikusiko luketela, edo gutxienez administrazioa euskara menperatzen duten langileak kontratatzerara behartuta egongo litzatekeela.

Benetako euskalduntze horri begira, Jaurlaritzaren Justizia Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioako hizkuntza-normalkuntzarako prozesua arautzen duen 2008ko uztailaren 29ko Dekretua aldatzeko asmoa du, bost urteko planen bitartez koofizialtasuna eta elebitasuna mailaka gauzatzen joateko asmoz. 2011n onartu nahi duten dekretu horri esker, 10 urteko epean hizkuntza lanpostuen %35 ingururentzat eskakizun berezia izatea espero da eta horrek hizkuntzaren normalizazioa lortzeko ezinbestekoa den prozesuen antolaketan lan-talde elebidunak egotea ahalbidetuko du, hau da, prozesu judizialen tramitazioa euskaratzeko edo euskaraz egiteko gai diren lan-taldeak egongo dira.

Horrez gain, euskara juridikoaren lanketan bide handia dago egiteke, egindako lanari irteera eskasa eman baitzaio, eta lan horietako asko partikularrak dira, batasun gabeak. Epaille euskaldunen banaketa desegokiari dagokionez, banaketa hori orekatzeko bideak jartzea beharrezkoa izango da, oinarrizko eskubide bati buruz ari garen heinean, eskubide hori ezin baita herri baten biztanle euskaldun kopuruak mugatuta egon, hiztun bakarra badago ere, bere eskubideak oinarrizkoa izaten jarraitzen du eta.